

FUTBOLA. Bederatzi talde daude sailkatuak jada

Zazpi txartel daude jokoan
Txapeldunen Ligako
azkeneko jardunaldian

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Txapeldunen Ligako seigaren jardunaldia jokatu da gaur eta bihar, azkenekoa. Bederatzi taldek lortu dute jadanik hurrengo fasera sartzea: Borussia Dortmund eta Arsenal A multzoan, Valenzia B multzoan, Real Madril C multzoan, Juventus E multzoan, Manchester United eta Bayer Leverkusen F multzoan, Milan G multzoan eta Bartzelona H multzoan. Hala, zazpi txartel daude oraindik jokoan, eta horiek guztiak gaur eta bihar artean erabakiko dira.

B multzoan, Liverpool eta Basilearen artean dago dago txartela jokoan, bi taldeek Suitzan gaur jokatu duten partidari. Talde suitzarrari berdinketak balio dio; beraz, talde britainiarrak izango du presio guztia. C multzoan azkeneko zerbait gertatzen da, Erromak hiru puntu ateratzen baitizkio AEK Atenasi eta bi taldeek elkarren aurka jokatu baitute gaur Italian. Cappeloren taldea da faboritua.

TXAPELDUNEN LIGA							
A MUL.	Pt	J	I	B	G	AI	Ko
1. B. Dortmund	10	5	3	1	1	8	6
2. Arsenal	9	5	2	1	2	9	4
3. PSV Eindh.	5	5	1	2	2	5	8
4. Auxerre	4	5	1	1	3	3	7
6. JARDUNALDIA							
Auxerre				-	B. Dortmund		
Arsenal				-	PSV Eindh.		
B MUL.	Pt	J	I	B	G	AI	Ko
1. Valenzia	13	5	4	1	0	14	4
2. Basilea	8	5	2	2	1	9	8
3. Liverpool	7	5	2	1	2	5	7
4. Spartak M.	0	5	0	0	5	1	15
6. JARDUNALDIA							
Valenzia				-	Spartak Mosku		
Basilea				-	Liverpool		
C MUL.	Pt	J	I	B	G	AI	Ko
1. Real Madril	8	5	2	2	1	14	6
2. Erroma	8	5	2	2	1	2	3
3. AEK Atenas	5	5	0	5	0	6	6
4. Genk	3	5	0	3	2	1	8
6. JARDUNALDIA							
Genka				-	Real Madril		
Erroma				-	AEK Atenas		
D MUL.	Pt	J	I	B	G	AI	Ko
1. Inter Milan	8	5	2	2	1	10	7
2. Ajax	5	5	2	2	1	5	3
3. O.Lyon	5	5	2	1	2	11	8
4. Rosenberg	3	5	0	2	3	3	11
6. JARDUNALDIA							
Rosenborg				-	Olympique Lyon		
Ajax				-	Inter Milan		

Beltzez sailkatutako taldeak.

D multzoa da guztietan irekiena, sailkatutako talderik ez baitago. Inter Milangoak eta Ajaxek zortzina puntu dituzte, eta Olympique Lyonek, zazpi. Ajaxek eta Inter Milangoak elkarren aurka jokatu dute gaur, Amsterdamen, eta Olympique Lyonek Norvegian, sailkatzeko aukerarik ez duen Rosenborgen aurka.

Hiru talde postu baterako

E multzoan, Juventus sailkatua dago jadanik, eta beste txartelerako hiru talde daude saltsan: Dinamo Kiev, Newcastle eta Feyenoord. Dinamo Kievek etxean jokatu du, Juventusen aurka. Feyenoordek eta Newcastlek, aldiz, elkarren aurka jokatu dute, Rotterdamen.

G eta H multzoetan bi talde daude sailkatuak: Milan eta Bartzelona. G multzoan Deportivoren eta Lensen artean dago sailkatzeko lehia. H multzoan, ordea, hiru talde sailka daitezke: Brujasek, Galatasarayk eta Lokomotiv Moskukoak.

E MUL.	Pt	J	I	B	G	AiKo				
1. Juventus	10	5	3	1	1	10	2			
2. Dinamo Kiev	7	5	2	1	2	5	7			
3. Newcastle	6	5	2	0	3	3	6			
4. Feyenoord	5	5	1	2	2	2	5			
6. JARDUNALDIA										
Feyenoord - Newcastle										
Dinamo Kiev - Juventus										
F MUL.	Pt	J	I	B	G	AiKo				
1. Man. United	12	5	4	0	1	14	8			
2. Leverkusen	9	5	3	0	2	9	9			
3. M. Haifa	6	5	2	0	3	9	9			
4. Olympiakos	3	5	1	0	4	8	14			
6. JARDUNALDIA										
Manchester U. - B. Leverkusen										
M. Haifa - Olympiakos										
G MUL.	Pt	J	I	B	G	AiKo				
1. Milan	12	5	4	0	1	11	5			
2. Deportivo	9	5	3	0	2	9	11			
3. Lens	7	5	2	1	2	8	8			
4. B. Munich	1	5	0	1	4	6	10			
6. JARDUNALDIA										
B. Munich - Lens										
Milan - Deportivo										
H MUL.	Pt	J	I	B	G	AiKo				
1. Bartzelona	15	5	5	0	0	10	3			
2. Brujas	5	5	1	2	2	5	5			
3. Galatasaray	4	5	1	1	3	4	7			
4. Lokomotiv M.	4	5	1	1	3	3	7			
6. JARDUNALDIA										
Bartzelona - Galatasaray										
Lokomotiv M. - Brujas										

ATLETISMOA. Pablo Gomez izan da lehen euskalduna, 7. postuan



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS
Benjamin Rotich, Bulebarreko helmugara iristen, Jumanne Tluway atzean duela.

Benjamin Rotich eta Iratxe
Aranburu nagusitu dira
Behobia-Donostia lasterketan

Ia hamaika mila lagunek hartu dute parte, giro ezin hobean, eta, azkeneko urteetan ez bezala, txipak ondo funtzionatu du

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Urtero legez, milaka korrikalarik hartu zuten parte herenegun Behobia-Donostia herri lasterketan. Ia hamaika mila lagun inguru abiatu ziren goizean goiz Behobia eta Donostia banatzen dituzten hogeita bat kilometroak egiteko asmoz. Batzuk irabazteko helburuarekin irten ziren. Beste asko, denbora ona egiteko helburuarekin. Baina, ziurrenik, milaka eta milaka korrikalarik helburu bakarrarekin irten ziren: Donostiako Bulebarreko pasealekuan ezarrita zegoen helmugara iristea.

Laneguna goizeko 10:30ean hasi zen, 43 ezindu atera baitziren gurpil aulkiekin, iaz halako bi. Goizeko 11:00etan, aldiz, korrikalari tropelaren txanda izan zen, eta, beti legez, irteera ikusgarria izan zen. Benjamin Rotich kenyarra eta Jumanne Tluway tanzaniarra ziren irabazteko faborito nagusiak, eta lasterketa hasiera aurkeztu zuten hautagaitza, erritmo bizia ezarrita. Konturatu orduko bakarrik zeuden lasterketaren buruan, Javier Caballerorekin batera.

Kataluniarrak afrikarren erritmoari eustea lortu zuen aurreneko sei kilometroetan, baina Gaintxurizketako lehen aldapak iritsi eta amore eman zuen, eta metroak galtzen hasi zen pixkanaka-pixkanaka. Orduan hasi zen Rotich eta Tluwayren indar erakustaldia; erritmo izugarria ezarrita, aurkarietako aldean ditzuten joan ziren. Tarteko denborek agerian uzten zuten bikotearen denbora bikaina izango zela, Alberto Juzdadoreen errekorretik oso gertu baitzeuden.

Helmuga iritsi arteko kilometroetan lasterketako egoera ez zen aldatu. Aurrean, Tluwayek hainbat eraso egin zituen, Rotich atzean uzteko asmoarekin. Kenyarrak, hala ere, ondo baino hobeto erantzuten zien eraso guztiei. Argi zegoen proba esprintean erabakiko zela eta bukaera onena zuen korrikalariak irabaziko zuela. Eta hala izan zen, Bulebarreko pasealekura elkarrekin iritsi baitziren bi korrikalari afrikarrak. Rotichek eraso gogorra jo zuen, eta Tluway erantzun ezinik geratu zen. Kenyarrak denbora bikaina lortu zuen, ordutik jaitsita (59:40). Bi segundora Tluway helmuga-

ratu zen, eta ia bi minutura, Caballero. Lehen euskalduna Pablo Gomez bizkaitarra izan zen, zazpigarren, eta lehen donostiarra Asier Urdanpilleta, hamahirugarren. Emakumezkoek dagokienez, Iratxe Aranburu zaraustarra izan zen irabazlea, 1:15:38ko denborarekin.

Bi bihotzeko

Aurtengo Behobia-Donostiako alde onenen artean ere txiparena aipa daiteke. Azkeneko bi urteetako lasterketetan hamaika arazo eman zituen txipak, eta korrikalari asko amorrarazi. Aurtun, aldiz, Chip Timing enpresak utzitako *championchip* erako txipak emaitza ona eman du, kasu bakar batzuk alde batean utzita ondo funtzionatu baitu. Probako antolatzaileak oso pozik azaldu dira, eta datorren urtean txip bera erabiliko dutela adierazi dute.

Lasterketa gehienak bezala, Behobia-Donostiak ere badu alde ilunik. Aurtun, 60 lagun baino gehiago artatu dituzte helmugan, iaz halako bi. Bi korrikalarik bihotzekoa izan zuten, batek Pasaian eta besteak helmugan.